

Katalogoa erakundearen web-orritik kontsulta daiteke

Kutxabankek 60 urtez gorakoentzako bidaiak eta txangoen eskaintza egiten du

- **Interesatuak martxoaren 16tik aurrera eman dezakete izena Kutxabank webgunean**
- **Programaren garapen teknikoa Azul Marino Bidaiak egingo du; Espainiako estatuan erreferentziako operadore turistikoa eta distantzia luzeko bidaietan aditua da**

2022ko otsailaren 28an. Azul Marino Bidaiak Kutxabankeko 60 urtetik gorako bezeroentzako, 100% Nagusi, bidaiak eta txangoak aurkeztu ditu, **56 helmugatara 125 irteera**, eta egun bateko **2 ibilbide** laburrago, **8** irteerarekin. Guztira **6.000 postu baino gehiago** daude eskuragarri distantzia luzeko, ertaineko bidaiak eta txango horietarako.

Katalogoa, bertsio digitalean, bihurtik, **martxoaren 1etik**, aurrera egongo da eskuragarri erakundearen negozioko web-orrietan, eta segmentuko bezeroek ohiko komunikazio-kanalaren (newsletter edo posta arruntaren) bidez jasoko dute informazioa.

Bidaiak-programa hau **oso estimatua** dute Kutxabankeko bezero zaharrenek, kalitate-zerbitzu erlazio ona duelako eta oso ondo baloratutako zerbitzu osagarriak sartzen dituelako, besteak beste gidari laguntzaileak, helmugako laguntza, ibilbide eskusiboak, zerbitzu egiaztatutako edo, aurretik, laguntza eta ezeztatze-aukera gehiago dituen aseguruaren estaldurak handitzea.

Ibilbide guztien antolaketa teknikoa Azul Marino Bidaiak, Iberostar Taldeko World2Meet-ekoak (W2M), egin du. Euskal tour operadore ospetsu hau liderra da bere negozio-segmentuan, 40 urteko esperientzia du distantzia luzeko bidaietan, eta Espainiako estatu osoko turismo-operadore nagusietako bat da.

Helmuga seguruak eta irisgarriak

Aurtengo programazioa antolatzeko, kontuan hartu dira osasunaren ikuspegitik irisgarriak eta seguruak diren helmugak. Horregatik, aurreko edizioekin alderatuta, distantzia luzeko helmugak murriztu egin dira, eta ugaritu kostalde, penintsula, mendi-ibili, Kanariar Uharte, Bainuetxe eta Europako zenbait herrialdetarako bidaiak.

Izena emateko epea **martxoaren 16an** (asteazkena) hasiko da, **10:00etan**, eta Internet bidez formalizatu ahal izango da, Kutxabanken web-orrian adinekoei zuzendutako gunetik. Azul Marino Bidaiak, bestalde, bere web atarian eta bere bulegoetan izena emateko aukera ere eskaintzen du, 946 620 222 telefono-zenbakiaren laguntzarekin.

Bidaia-programaz baldintza berezietan goatzeko, ezinbestekoa da Kutxabanken pentsioa helbideratuta izatea eta gutxienez erakundearen txartel bat, baita 60 urtetik gorakoa izatea ere.